

[Eusk/Cast] Sus propiedades o nuestras vidas, ¡No hay término medio!

ETXEBIZITZA SINDIKATUEN SAREA :: 08/05/2023

Lectura sobre la nueva Ley de Vivienda. Red de Sindicatos de Vivienda de Hego Euskal Herria

[Euskara]

Gaur, maiatzak 5, Hego Euskal Herriko hainbat Etxebizitza Sindikatu elkartu gara Gasteizen.

Hiru urte inguru daramatzagu etxebizitzaren arazoari aurre egiten, bakoitzak bere auzo, herri

zein hirian. Hala ere, agerraldi honen bitartez, ezagutzera eman nahiko genuke antolakuntza-mailan aurrerapausu bat ematea erabaki dugula. Etxebizitzaren aldeko borrokak, maila lokalean ezinbesteko garrantzia duen arren, argi dugu lokaletik haratagoko jatorria zein eragina duela eta beraz, erantzuna ere horren neurrikoa izan behar duela deritzogu, eskalan handiagoa eta konplexuagoa. Hori dela eta batu gara gaur hemen, Etxebizitza Sindikatuaren Sarea ezagutzera emateko. Bakoitzak bere tokian-tokiko borroketan buru-belarri jarrituko duen arren, aipatutako arrazoiak direla medio, gaurtik aurrera gure gertuko errealitatetik haratago arituko den sarea aurkeztera gatoz, urrian ospatu genituen Etxebizitza Topaketetan adostu genuen bezala.

Esan bezala, eremu zabalago eta konplexuagoan antolatuko da sare hau, aipatutako eremua Euskal Herria dela identifikatuz; eta saretze konplexuagoari dagokionez, gure tokian-tokiko borrokek ahalbidetzen ez diguten erantzun- nahiz eragite-maila zabalagoetara iritsi ahal izateko. Hortaz, norabide honetan kokatzen dugu gure gaurko lehen agerraldia, berriki onartutako etxebizitza Legearen inguruko Sindikatuon arteko irakurketa bateratua hain zuzen.

Hauxe da gaur adierazitakoa:

Miseriak gero eta gehiago itotzen gaituen honetan, isolatuta nahi gaituzte, ezjakin eta desarmatuta.

Baina hiru urte pasa dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan Etxebizitza Sindikatu eta Sareak sortu

ginela. Desjabetuon behar materialak asetzeko apostua egin genuela, autodefentsa tresnak garatuz,

borrokarako balditzak sortuz eta herri boterea eraikiz. Hiru urte hauetan zehar eskuak zikindu eta

hamaika borroka eman ditugu, hainbat porrot eta zenbait garaipenekin, jarraitzeko behar adina indarra

eman digutenak. Horregatik, gaurkoan, pasa den astean onartutako Etxebizitza Lege berriaren aurrean

gure irakurketa plazaratzeko elkartu gara hemen:

Etxebizitza Lege berria onartu zen aurreko astean. Koaliziozko gobernuak, ERCk eta EH Bilduk bultzatu eta lau haizetara iragarritakoa. Lege honi esker "etxebizitza ez da negozioa izango, eskubidea baizik" bezalako adierazpen itzaropentsuak irakurri ahal izan ditugu komunikabideetan. Hori dela eta, akordio honen puntuetako batzuk aztertuko ditugu, zirrara hau justifikagarria den ikusteko. Spoiler: ezer ere ez, izan ere, etxebizitzak eskubide bilakatzeko merkantzia izateari utzi beharko lioke, baita jabetza pribatu kapitalista desagertu; mahaigainean dagoen erreforma elektoralista xume honetatik urruti, alegia.

Hala ere, lege berriak baditu zenbait hobekuntza eta aldeko ezaugarri batzuk 2022ko Lege-aurreproiektuarekin alderatuta, izan ere, hauek betearazteko erremintak ipiniko balira, klase desjabetuaren zati baten etxebizitzarako sarbidea hobetuko litzateke. Batzuk aipatzearen: etxe-agentzien negozio lotsagarriari mugak ezartzea, jabeen gain eroriz kostuak maizterren mesedetan; "etxegabetze irekien" (data eta ordurik gabekoak) debekatzea, herri-erantzun eta -elkartasuna saihesteko terrorismo instituzionalaren tresnetako bat; edo errentismoaren (etxebizitza-merkatuaren subjektu nagusietakoa) gaitzaren gaineko eskuhartzea, "jabe handia" izateko irizpide lotsagarriak murriztuz, 10 jabetzatik 5era (hori bai, sinesgaitza badirudi ere, soilik "tentsio guneetan" betearaziko da).

Dena dela, kontzesio txiki hauek langile klasearen garaipentzat saltzen dizkiguten bitartean, Euskal Herriko etxebizitza sindikatuetatik salatu nahiko genuke ez direla nahiko etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, are gehiago, gure klasearen gehiengoarentzat, arazo hau areagotzen jarraituko luke. Zentzu honetan, kontraesan agerikoena "alokairuen erregularizazioan" aurki dezakegu. Urteak dira arazo hau minimoki arintzeko eta espekulazioa mugatzeko, alokairuari sabaia jartzea proposatzen gabiltzala sindikatu eta mugimendu sozial ezberdinetatik. Legeak, ordea, ez du horrelako ezer egingo, zeren eta alokairuen prezioen igoerari sabaia jartzen baitie soilik (%2koa 2023rako eta %3koa 2024rako). Beraz, alokairuen prezioek igotzen jarraituko dute, baina modu "kontrolatuan". Hau guztia, langile klasearen soldata erreala maldan behera doan krisi kapitalista fase baten baitan,

gehiengoarentzat etxebizitza eskuratzea are nekezagoa izatea eragingo duena hain zuzen ere.

Gainera, salbuespenak egongo dira, jabeek espekulatzen eta tranpak egiten jarraitzeko aukerak

ahalbidetuz ("berritze-lanak" egin direla adieraziz, alokairua %10ean igo daiteke, esate baterako).

Sinesgaitza deritzogun beste auzietako bat, "turismoaren industriaren" negozioa aipatu ez izana da,

etxebizitzaren espekulazioaren eta desjabetzaren eragile nagusietako bat, zalantzarik gabe.

Testua

"tentsio guneen" eta "tentsiorik gabekoen" arteko desberdintasunez ari da behin eta berriro (hau da,

espekulazioaren ondorioz, etxebizitza merkatua "kontrolrik gabe" dabiltzan guneak) eta ez da inongo

neurririk hartzen auzo hauetan "kontrol eza" eta "tentsioa" eragiten duen sektorearen aurrean: hotelen,

pisu turistikoen, AirBnb-en, aldi baterako alokairuen eta abarren bitartez, gure auzoak gentrifikatzen

zein turistifikatzen eta auzokideak kanporatzen ari den turismoaren industria alegia.

Legearen beste alderdi esanguratsuetako bat, 100.000 etxe eskuragarrien eraikuntza da, Espainiar

Estatuan 4 milioi etxebizitza huts dagoen bitartean. Soilik Euskal Herrian 275.000. Datu hauei

erreparatuta, argi dago etxebizitza eskuraezintasunak ez datzala honen faltan, jabetzaren animazioan

eta banaketan baizik. Garapen eta krisi ekologikoaren testuinguruarekin talka egiteaz gain, negozio

kapitalista eta burgesiaren irabazi tasa bermatzeko bidea izango da berriro ere etxebizitza berrien

eraikuntza. Azken finean, elkarlan publiko-pribatuaren esanahia hurrengokoa da:

finantziazio publikoa

(galeren sozializazioa) eta irabazi pribatuak (etekinen pribatizazioa).

Gehien kezkatzen gaituen beste aferetako bat, ez da legeak bere baitan barnebiltzen duena, baizik eta

izkutatzen dituen errealitateak: gaur gaurkoz etxebizitza arazoak pairatzen ditugunon gehiengoari

muzin egiten baitio Lege honek. Etxebizitzaren arazoak orokorrean langile klaseari eragiten badio ere,

gure praktikak erakutsi digu, desjabetuon geruza batentzat eguneroko tragedia bilakatzen dela

problematika hau. Gehiengo kontratu barik bizitzera behartuta gaude, errolda eskuratzeko ordaindu

behar izatera, gehiegizko subarriendo kontratuak onartzera eta instituzio zein higiezinaren arrazakeriari

aurre egitera, modu askotariko mehatxu eta indarkeriak jasoz jabeengandik. Gure hirietan

ematen diren
etxegabetzeen gehiengoa, estatistika ofizialetan zenbatzen ez direla diozku gure
esperientziak, hau
da, ezkutuko etxegabetzeak dira, indarkeria hauetatik eratorriak eta instituzioekin
elkarlanean. Hau
horrela, Lege berriak ez ditu geruza prekarizatuenak kontuan hartuko, atzerritar legearen
ondorioak
pairatzen ditugunak esaterako. Lege honek ez du inongo eraginik izango jabeek
maizterrongan dituzten
botere harremanetan eta indarkeria hauek guztiak bere horretan mantenduko ditu: hots,
ikusezinak are
ikusezinago izango dira eta ahotsik gabeen ahotsak oraindik eta gehiago isilaraziko ditu
hauteskunde-
propagandaren ondorioz.

Bukatzeko, Legeak jasotzen dituen neurri positibo horiek (gutxi batzuk) izan dezaketen
eraginakortasunak ere kezkatzen gaituela adierazi nahiko genuke. Hego Euskal Herrian bi
Etxebizitza
Lege ditugu jadanik (EAE eta Nafarroakoa), etxebizitza eskubidea bermatzea eta honen
negozioa
mugatzea adierazten dutenak; neurri hauek indarrean jartzeko erreminta zehatzik ezarri
gabe.
Borondate oneko adierazpenak eta funtsik gabeko propaganda besterik ez, beraz. Zentzu
honetan,
ikusteko dago jabeek, putre-funtsei eta inmobiliariei dagozkien betebeharrak betearazteko
neurri
zehatzak zeintzuk izango diren oraingoan, baita hauek ez betetzekotan ezarriko zaizkien
zigorrak.
Hitz gutxitan esanda, etxebizitza Lege honek, "etxebizitza eskubidea bermatzearen" aldarri
elektoralistetaik urrun, helburu argia du: langile klasea pobretzen jarraitzea, klase
jabedunaren etekinak
bermatuko dituen bitartean.

Horregatik guztiagatik, borroka honekiko gure konpromisoa berretsi nahi dugu. Jakin
badakigulako,
etxebizitza eskubidearen konkistan aurrerapausoak emateko arma eraginkor bakarrak
antolakuntza eta
borroka direla. Isolatuta nahi gaituzte, ezjakin eta desarmatuta, baina honek ez dauka
atzera bueltarik.
Desjabetuon behar materialak asetzen jarraituko dugu, amorrutan antolatzen eta herri
boterea
erakitzen. Etxebizitzaren aldeko borroka desjabetuon lubaki bihurtzera goaz, tokian-tokiko
borroketatik,
borroka komunetarako bidea elikatuz!

Haien jabetzak ALA gure bizitzak ez dago erdibiderik!

[Castellano]

Hoy, a día 5 de mayo, nos hemos reunido varios Sindicatos de Vivienda de Hego Euskal Herria en Gasteiz. Llevamos alrededor de tres años haciendo frente a la problemática de la vivienda, cada una desde su barrio, pueblo o ciudad. Sin embargo, queríamos dar a conocer, a través de este acto, que hemos decidido dar un paso hacia adelante en lo que consta a nivel de organización. Sin obviar lo imprescindible y lo necesario de la lucha por la vivienda a nivel local, sabemos de sobra que esta cuestión procede e incide más allá de lo local y, por lo tanto, creemos que la respuesta también debe de ser superior, de mayor escala y complejidad. Es por eso que nos hemos reunido hoy aquí, para dar a conocer la Red de Sindicatos de Vivienda de Euskal Herria. Por supuesto, cada una continuará dejándose el alma en sus luchas cotidianas, no obstante, y por las razones ya mencionadas, venimos a presentar una red que trabajará más allá de nuestra realidades cercanas, al igual que acordamos en los Encuentros de Vivienda que celebramos en octubre.

Como ya hemos mencionado, esta red se organizará en un marco más amplio y complejo, identificando ese marco como Euskal Herria y en lo que a complejidad respecta, para poder llegar a un nivel de respuesta e incidencia mayor, a las que nos es imposible llegar a través de nuestra lucha local. Dicho esto, entendemos este nuestro primer acto en este sentido, como una lectura compartida de los Sindicatos sobre la Ley de vivienda recientemente aprobada.

Esta es la lectura hoy presentada:

SUS PROPIEDADES O NUESTRAS VIDAS, ¡NO HAY TÉRMINO MEDIO!

Lectura sobre la nueva Ley de Vivienda. Red de Sindicatos de Vivienda de Hego Euskal Herria

En estos tiempos en los que la miseria nos ahoga cada vez más, nos quieren aisladas, ignorantes y desarmadas. No obstante, hace tres años diferentes Sindicatos y Redes de Vivienda afloraban en diferentes rincones de Euskal Herria. Tres años desde que apostamos por cubrir las necesidades materiales de las desposeídas, desarrollando herramientas de autodefensa, generando condiciones de

lucha y construyendo pode popular. Tres años en los que nos hemos ensuciado las manos en las diferentes luchas y conflictos llevados a cabo, con victorias y derrotas, las que nos dan la fuerza para seguir peleando. Es por eso que nos hemos reunido hoy aquí y hacemos pública nuestra lectura sobre la Ley de Vivienda aprobada la semana pasada:

La semana pasada se aprobó la nueva Ley de Vivienda. Impulsada y anunciada, a bombo y platillo, por el gobierno de coalición, ERC y EH Bildu. En los medios hemos llegado a leer declaraciones que celebraban que, gracias a la futura Ley, “la vivienda ya no sería un negocio, sino un derecho”. Por ello, vamos a analizar algunos puntos de este acuerdo, para ver qué hay de justificado en este entusiasmo. Spoiler: nada, porque para que la vivienda sea un derecho debería de dejar de ser una mercancía y abolirse la propiedad privada capitalista; nada que ver con la tímida Reforma electoralista que se está proponiendo

La nueva Ley, en cambio, tiene puntos positivos y mejoras respecto al anteproyecto de Ley de 2022, que, de poner herramientas concretas para que se cumplan, mejorarían ligeramente el acceso a la vivienda para una parte de las clases desposeídas. Entre ellos: las limitaciones al vergonzoso negocio de las empresas inmobiliarias, cuyos costes asumirían los propietarios y no los inquilinos; la prohibición de los “desahucios en abierto” (sin fecha y hora), una práctica de terrorismo institucional empleada para evitar la respuesta y solidaridad popular; o la limitación a la lacra del rentismo (uno de los principales sujetos del mercado inmobiliario), rebajando los vergonzosos criterios para ser considerado “gran tenedor”, de 10 a 5 propiedades (eso sí, medida incomprensiblemente limitada solo a las “zonas tensionadas”).

Ahora bien, mientras nos venden estas pequeñas concesiones como grandes victorias para la clase trabajadora, desde los sindicatos de vivienda de Euskal Herria queremos denunciar que no solo son insuficientes para mejorar la problemática de la vivienda, sino que, para la mayoría de nuestra clase, este problema seguiría aumentando.

Lo más evidente, en este sentido, hace referencia a la “regulación de los alquileres”. Hace

años que desde diferentes sindicatos y movimientos sociales se plantea que la única forma de aliviar mínimamente el problema de la vivienda y limitar la especulación sería poner un techo a los alquileres. La Ley, en cambio, no hará nada de esto, ya que, se limita a establecer un techo a la subidas de los mismos (del 2% para 2023 y del 3% para 2024). Es decir, los precios de los alquileres seguirán subiendo, pero de forma “controlada”. Y esto, en una fase de crisis capitalista donde los salarios reales de la clase trabajadora están cayendo en picado, quiere decir que para la mayoría será todavía más difícil acceder a una vivienda. Por no hablar de que, además, habrá excepciones a esta norma y será fácil para los propietarios seguir especulando y haciendo trampas (por ejemplo, declarando que se han hecho “reformas” se puede llegar a subir el alquiler de un 10%).

Otra cuestión incomprensible es el no citar el negocio de la “industria del turismo”, una de las principales causas de la especulación inmobiliaria y la desposesión. A la vez que todo el texto se basa en la diferencia entre “zonas tensionadas” y no (es decir, zonas en el que el mercado de la vivienda está “descontrolado” por la especulación), no se toma ninguna medida hacia el sector que “descontrola” y “tensiona” estos barrios: esa industria del turismo, que mediante hoteles, pisos turísticos, Airbnb, alquileres temporales etc. está gentrificando y turistificando nuestros barrios y expulsando a las vecinas.

Otro punto crítico de la Ley es la construcción de las 100.000 viviendas asequibles. En el Estado español hay 4 millones de viviendas vacías. Solo en Euskal Herria, 275.000. Con estos datos queda claro que la inaccesibilidad a la vivienda no reside en la falta de la misma, sino en la acumulación y distribución de la propiedad. Junto con los problemas en términos de desarrollismo y crisis ecológica, la construcción de nuevas viviendas se convertirá, una vez más, en una forma de garantizar el negocio capitalista de la vivienda y la tasa de ganancia de la burguesía. Porque, al fin y al cabo, colaboración público-privada quiere decir esto: financiación pública (socialización de las pérdidas) y ganancias privadas (privatización de los beneficios).

Otro de los puntos que más nos preocupa no es tanto lo que la ley recoge, sino aquellas

realidades
que oculta: la mayoría de personas que hoy en día sufrimos el problema de la vivienda, no
estamos
contempladas en esta Ley. Nuestra práctica nos ha enseñado que, aunque el problema de la
vivienda
sea generalizado para la clase trabajadora, hay una capa de ésta para quienes este
problema se
convierte en tragedia cotidiana. La mayoría estamos obligadas a vivir sin contrato, a pagar
para tener
un padrón, a aceptar contratos de subarriendo abusivos y a tenernos que enfrentar al
racismo
inmobiliario e institucional, sufriendo todo tipo de amenazas y violencias por parte de los
propietarios. Nuestra experiencia nos dice que la mayoría de desahucios que se dan en
nuestras
ciudades, no se contabilizan en las estadísticas oficiales, es decir, son desahucios
encubiertos,
derivados de estas violencias y con la complicidad de las instituciones. En este sentido, la
nueva Ley
no contemplará a las más precarizadas, por ejemplo a quienes sufrimos las consecuencias
de la ley de
extranjería. Esta Ley no intervendrá sobre la relación de poder que tienen los propietarios
sobre los
inquilinos y dejará impunes todas esas violencias; es decir, hará que los invisibles se vean
todavía
menos y que la voz de los sin voz se quede todavía más silenciada por el ruido de la
propaganda
electoral.

Finalmente, decir que también nos preocupa la efectividad que puedan tener las (pocas)
medidas
positivas que se contemplan en la presente Ley. En Hego Euskal Herria tenemos ya dos
Leyes de
Vivienda (la de la CAV y la de Navarra), que hablan de garantizar el derecho a la vivienda y
limitar
su negocio; sin establecer ninguna herramienta concreta para hacer dichas medidas
efectivas. Por lo
que acaban siendo declaraciones de buenas intenciones y propaganda vacía. En este
sentido, veremos
qué herramientas concretas se concretarán esta vez para que se obligue a propietarios,
fondos buitres
e inmobiliarias a cumplir con sus obligaciones y qué herramientas de castigo existirán en el
caso de
no hacerlo.

Es decir, esta Ley de vivienda, lejos de las proclamas electoralistas que hablan de
“garantizar el
derecho a la vivienda”, tiene un objetivo claro: seguir pauperizando a la clase trabajadora, a

la vez

que se garantizan las ganancias de la clase propietaria. Horregatik guztiagatik, borroka honekiko gure

konpromisoa berretsi nahi dugu. Jakin badakigulako que la única arma efectiva para ir dando pasitos

hacia la conquista de avances en el derecho a la vivienda, será la organización y la lucha.

Isolatuta

nahi gaituzte, ezjakin eta desarmatuta. Baina honek ez dauka atzera bueltarik. Desjabetuon behar

materialak asetzen jarraituko dugu, amorruan antolatzen eta herri boterea erakitzen

Etxebizitzaren aldeko borroka desjabetuon lubaki bihurtzera goaz, tokian-tokiko

borroketatik,

borroka komunetarako bidea elikatuz!

Haien jabetzak ALA gure bizitzak ez dago erdibiderik!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-sus-propiedades-o>